



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bilboko Udala

**Iragarkia, Bilboko Udalarena, Bilboko Gobernu Batzarraren 2022ko uztailaren 27ko erabakiari buruzkoa, zeinaren bidez onartzen baita Bilboko Udaleko Egonkortze-Prozesu Bereziak eta Ohiz Kanpokoak arautu dituzten oinarri Orokorrak.**

Bilboko Gobernu Batzordeak honakoa xedatu du 2022ko uztailaren 27ko erabakiaren bidez:

«Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.h) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen egungo idazketan, eta aurreko txostena ikusita,

#### HONAKO HAU ERABAKI DA:

*Lehenengoa:* Onestea Erabaki honen I. eranskinean jasotako oinarri orokor komunak. Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko ohiz kanpoko eta egonkortze-prozesu berezien hautaketa-prozesu guztiak arautuko dituzte oinarri orokor horiek, eta, era berean, lehiaketa bidezko ohiz kanpoko egonkortze-prozesuei aplikatzeko arau espezifikoak, eta lehiaketa-oposizio bidezko egonkortze-prozesu berezietarako arau espezifikoak biltzen dituzte.

*Bigarrena:* Nahi izanez gero, ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita. Hori horrela da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera.»

Bilbon, 2022eko uztailaren 27an. — Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko zuzendaria

**EGONKORTZE-PROZESU BEREZIAK ETA OHIZ KANPOKOAK ARAUTU  
BEHAR DITUZTEN OINARRI OROKORRAK BILBOKO UDAL TXIT  
GORENEAN LANGILE-PLAZAK JABETZAN BETETZEKO****Lehenengoa. — Xedea**

Oinarri hauen helburua hau da: enplegua egonkortzeko Bilboko Udaleko langile-plazak jabetzan betetzeko prozedura bereziak eta ohiz kanpokoak arautuko dituzten jarraibide orokorrak finkatzea.

Bilboko Udalak onartu eta 2022ko apirilaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (78. zk.) argitaratu zen lan-eskaintza publikoak, 20/2021 Legeak, abenduaren 28koak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurrienak (aurrerantzean, 20/2021 Legeak), xedatzen dituen egonkortze-prozesuen mende dauden hainbat plaza barnebiltzen ditu.

Lege horretan, eta haren seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriekin bat etorriz, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ohiz kanpoko deialdia baimentzen da, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bategina onesten duenak, bere 61.6 eta 61.7 artikuluetan ezarritakoaren arabera, lehiaketa-sistema erabiliz, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako bete ziren eta geroztik etenik gabe beteta egon diren plazen kasuan. Deialdi hau behin bakarrik egingo da.

Era berean, eta haren 2. artikuluari jarraikiz, epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi berezia egitea ahalbidetzen da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, aurrekontu-zuzkidura edukiz, 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan gutxienez eta etenik gabe aldi baterako hartuta egon diren plazei dagokienez.

Deialdi horien xede diren plaza betetzen ari den pertsonak (edo pertsonak) oinarri hauetan deskribatutako hautaketa-prozesuetan ez parte hartzeak plaza horietarako izangai bihurtzeko ezintasuna eta kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik eza erakarriko du, 20/2021 Legearen 2.6 artikuluari jarraikiz.

**Bigarrena. — Aplikagarria den araudia**

Araudi hau izango da aplikagarria:

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriena (aurrerantzean, 20/2021 Legea).
- 14/2021 Errege Lege Dekretua, uztailaren 6koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriena.
- 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, haren 19.Bat.6 artikuluan, eta 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, 19.Bat.9 artikuluan.
- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoa eta eskalena (aurrerantzean, 7/2021 Legea).
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena (aurrerantzean, EPOETB).
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki-administrazioaren funtzionarioak hautatzeko prozesuak bete behar dituen oinarritzko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituena, haren 8. eta 9. artikulua izan ezik.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.



- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako, gaur egun indarrean dagoen idazketan.
- Osagarri modura, 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorren Zerbitzuko langileen sarbideari buruzko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostu-hornikuntzarako eta lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra onesten duena.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/EE Zuzentzura indargabetzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

Egonkortzeko ohiz kanpoko prozesuak eta prozesu bereziak oinarri orokor hauen arabera arautuko dira, eta, haien aurkakoa ez den guztian, osagarri modura Bilboko Udaleko langile-plazak jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri orokorrak, 2020ko uztailaren 10eko BAO (131. zk.) argitaratuak, aplikatuko dira.

Orokorrean, langile guztientzat (alde batera utzita zein kidego eta eskalatara iritsi nahi duten), arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudia.

#### **Hirugarrena. – *Tratu-berdintasunaren printzipioa***

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua eta 3/1979 Lege Organikoa –abenduaren 18koak– onetsitako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. eta 9. artikuluek xedatzen dutenaren arabera, deialdietan tratu-berdintasunaren printzipioa bete beharko da, eta ezingo da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta, zio justifikatu eta zentzuzko, proportzioso eta koherenteetan tratu desberdina funtsatzen duen arauen batek ez badu babesten hura.

#### **Laugarrena. – *Egonkortze-prozesuen deskribapena***

Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan arautuko dira eta, nolana ere, honako hauek aintzat hartu beharko dituzte:

- Deitutako plazen kopurua eta hizkuntza-eskakizunaren eta txandaren araberrako banaketa.
- Eskabideak aurkezteko epea.
- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu behar den tasaren zenbatekoa.
- Sarbiderako titulazioa.
- Baliotsi daitezkeen merezimenduak eta haien baremoa.
- Deitutako plazei dagozkien lanpostuen betekizun espezifikoak.
- Egonkortze-prozesu berezietan, faseak eta gai-zerrenda.



- Emakumeen lehentasun-klausula aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

Kategoria bakoitzean, hartarako legezko baldintzak betetzen dituzten lanpostu hutsak baldin badaude, bi motatako prozesuetara deituko dira: enplegua egonkortzeko ohiz kanpoko prozesua eta enplegua egonkortzeko prozesu berezia.

Enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua, 7/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspenen testuinguruan, 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriekin bat etorritik, lehiaketa-sistemaren bidez egingo da.

Enplegua egonkortzeko prozesu berezia, 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspenen testuinguruan, lehiaketa-oposizio sistemaren arabera egikarrituko da.

Bi prozesuetan bina txanda hartu ahalko dira kontuan: txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzako gordetako sarbide-txanda.

Oinarri hauek hiru ataletan egituratzen dira:

- I. Enplegua egonkortzeko ohiz kanpoko prozesuen eta enplegua egonkortzeko prozesu berezien arau erkideak.
- II. Enplegua egonkortzeko ohiz kanpoko prozesuen arau espezifikoak.
- III. Enplegua egonkortzeko prozesu berezien arau espezifikoak.

#### I. ENPLEGUA EGONKORTZEKO OHIZ KANPOKO PROZESUEN ETA ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIEN ARAU ERKIDEAK

#### **Bosgarrena. — Parte hartzeko baldintzak**

##### 1. Baldintza orokorrak

Deitu diren plazak lortzeko asmoa dutenek, parte hartzeko baldintza orokor hauek bete beharko dituzte, baita deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazitakoak ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu arte:

- a) Nazionalitatea. Espainiar nazionalitatea edukitzea.  
Zuzenean edo zeharka botere publikoaren egikaritzapenean edo Estatuaren eta Administrazio Publikoen interes orokorrak babesteko parte hartzea dakarten lanpostuetan izan ezik, espainiarren baldintza berberetan parte hartu ahalko dute:
  - a.a) Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea dutenek.
  - a.b) Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetako herritarren ezkontideak, ezkontide horien nazionalitatea edozein delarik ere, betiere bananduta ez badaude zuzenbidearen arabera. Era berean, baldintza berberekin, bien ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute hogeita bat urtetik beherakoak direnean edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, mendekoak direnek.Halaber, parte hartu ahalko dute Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen eta langileen joan-etorri librea aplikatzekoa duten nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartzen direnek ere.
- b) Gaitasuna: Eginbeharrak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea; gaitasun psikofisiko zehatza eduki beharko du, eta bere gaitasuna edo desgaitasuna bateragarria izan beharko du deitutako lanpostuei dagozkien betekizunak eta zereginak normaltasunez burutzearekin; Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute hori, zortzigarren oinarrian aurreikusten denaren arabera, alde batera utzita lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera lanpostuan egin beharreko egokitzapenak, baldin eta beharrezkoak balira pertsonak lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko.
- c) Adina: Hamasei urte beteta edukitzea eta, edozelan ere, nahitaez erretiroa hartu behar izateko adina ez gainditzea.



- d) Gaikuntza: Diziplina-espedita bidez edozein Administrazio Publiko edo Autonomia-erkidegotako konstituzio- edo estatutu-organismoen zerbitzuetatik kanporatuta ez egotea, ez eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasuna erabatekoa edo berezia ez edukitzea funtzionarioen kidego edo eskaletan sartu ahal izateko.

Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez edukitzea, baldintza berberetan bere Estatuan enplegu publikora sartu ahal izatea eragozten dionik.

- e) Titulazioa: Eskatutako titulazioa, kasuan kasuko oinarri espezifikoen adieraziko dena, edukitzea edo haren agiriak jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea.

Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiak egiaztatu beharko dute haiei dagokien baliozkotzea edo, hala izanez gero, haien homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea, badutela.

- f) Administrazio Publikoetan ari diren langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasun-zioen batean barne hartuta ez egotea, ezetsi gabe; hala ere, jada kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezin bat dutenentzat, aipatutako lege-arauek aipatzen duten auke-raketa-eskubidea egikaritu ahal izatea.

- g) Tasak: Indarrean dagoen Zerga-ordenantzan, Bilboko Udalaren dokumentuak luzatu eta emateko tasak arautzen dituenean, aurreikusitako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

- h) Deitutako plazan Bilboko Udaleko karrerako funtzionarioa ez izatea.

- i) Oinarri espezifikoen finkatzen diren gainerakoak.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Era berean, horiek guztiak eduki beharko dira hautaketa-prozedura osoan zehar, karrerako funtzionario izendatu arte, b) atalean gaitasun funtzionalari buruz adierazitakoa izan ezik, udal zerbitzu medikoek ziurtatu beharko baitute hura, praktiketako eta/edo karrerako funtzionario izendatu aurretik.

Baldintzak –orokorrak nahiz espezifikoak– atxikita dituen lanposturen bat eskatzen duten plazak ezingo dituzte inola ere bete baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu ez dutenek.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen zerrendatuko dira, deitutako plazei dagozkien lanpostuei esleitutako betebeharrak espezifikoak.

Aurrekoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakinez gero izan gairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, deialditik kanpo utziko du, interesdunak diona entzun ondoren, eta egun berean jakinaraziko dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

## 2. *Desgaitasuna duten pertsonen txanda*

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezteko direnek, parte hartzeko baldintzak betetzeaz gain, %33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua eduki beharko dute foru-aldundietako organo eskudunaren, IMSERSOren edo horien baliokidearen aldetik, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Horretarako, %33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta duten desgaituentzat gordetako plazetara aurkezteko direnek alegatu egin beharko dute hori, eskabidea aurkezteko epearen barruan; bide batez, hautaketa-prozesuan zehar, desagertu edo murriztu egiten bada desgaitasuna, eta adierazitako ehunekoaren azpitik geratzen bada, txanda arruntera aldatuko da ofizioz, betiere hautatutako izangaien proposamena argitara eman aurretik.

Hala ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen desgaitasunaren balorazioa eskatu duten baina artean horren inguruko ebazpenik jaso ez dutenek kautelaz parte hartu ahaliko dute desgaitasunaren txandan, organo eskudunak %33ko desgai-



tasun-maila edo handiagoa aitortu zain, baldin eta desgaitasuna aitortzen zaion ondo-rio-data eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data baino lehenagokoa izaten bada. Desgaitasunaren balorazioa ez bada ehuneko horretara iristen, halako egoeran dauden pertsonak txanda arruntera igaroko dira.

Oinarri espezifikoetan txanda bakoitzean zenbat plazatarako deialdia egiten den adieraziko da.

Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzen duen norbaitek dagozkion ari-ketak gainditu baina plazarik lortzen ez badu eta bere puntuazioa txanda irekiko beste izangai batzuek lortutakoa baino handiagoa bada, txanda horretan sartuko da, bere pun- tuazioari dagozkion hurrenkeraren arabera.

### 3. *Datuen babesa*

- a) Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesurako jasotako datu pertsonalak, hala nola izen-abizenak, NANA eta prestakuntza-maila, Bilboko Udalak tratatuko ditu, honako hauek lortze aldera:

Oinarri hauen xedea den hautaketa-prozesuan parte hartzea eta bere datuak aldizkari, iragarki-taula, web-orri eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzea, bai eta IVAPek edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren jakite-maila egiaztatzeko ere eta, oro har, epaimahaiak berak, edo izanez gero, epaimahaiak hala agintzen dion erakundeak edo enpresak hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatze-ko beharrezkoak diren datu haiek. Era berean, osasun-langile eskudunek egiaz- ta dezaten izangaiak gaitasun funtzionaleko baldintzetara egokitu egiten direla.

Tratamendu horiek Bilboko Udalari tratamenduaren arduraduna den heinean es- leitutako botere publikoen jardunean oinarritzen dira.

Hirugarrenei ez zaie daturik jakinaraziko, legezko betebeharrekoak edo titula- rrek baimendutakoak ez badira. Ez da nazioarteko datu-transferentziarik egiten. Baiki, datu-kategoria bereziak tratatzen dira; zehazki, osasun-langile eskudunek izangaiak gaitasun funtzionaleko baldintzetara egokitzen direla egiaztatzeko beharrezkoak diren osasun-datuak.

- b) Publikotasun-printzipioak arautzen du oinarri hauen xede den hautaketa-proze- sua eta, beraz, ez da eskabiderik onartuko izangaiak ez badu baimentzen bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuekin erabiltzea.
- c) Oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak era- tzeari dagokionez, izangaiak prozesu horietan parte hartzeko eskabidean adie- razi beharko dute baimena ematen ote duten Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei datu hauek lagatzeko: izen-abizenak, NANA, helbidea, ha- rremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila, legez aurreikusitako moduan enplegu-eskaintzak egin ahal izateko bakar-bakarrik; beren-beregi ematen ez badute baimena, ulertuko da ez dutela baimentzen halakorik egin dadin.
- d) Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, trata- mendua mugatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, eta hartarako, honako helbide honetara idatzi beharko dute: Bilboko Udalaren Kul- tura eta Gobernantza Saila, Ernesto Erkoreka plaza 1, 48007 Bilbo; edo Bilboko Udalaren Hiritargoaren Arreta Guneetara; edo elektronikoki, Bilboko Udalaren web-orriaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen formulario orokorraren bidez (esteka honetan aurkituko dena):

[https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=&categoria=temas&-cid=1272990083710&language=eu&menuAcordeonActivo=-1&pageid=1272990083710&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO\\_homeSrvTramites&perfil=ciudadano](https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=&categoria=temas&-cid=1272990083710&language=eu&menuAcordeonActivo=-1&pageid=1272990083710&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_homeSrvTramites&perfil=ciudadano)

- e) Bilboko Udalak egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, erakundearen tratamendu-jardueren erregistroa kon-





tsulta liteke web-helbide honetan: <https://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/eu/ambitos/el-ayuntamiento/proteccion-de-datos>.

**Seigarrena. — Eskabideak eta onarpena**

1. Eskabideak bete eta aurkeztea.
- a) Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute, parte hartu nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko. Eskabidea erantzukizunpeko adierazpenzat hartuko da.

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, honako hauek egin beharko dira:

- 1) Eskabidearen/erantzukizunpeko adierazpenaren atal guzti-guztiak bete,
- 2) Epe barruan aurkeztu, eta
- 3) Azterketa-eskubideen tasak ordaindu.

Ahal izanez gero, eskabideak bide telematikoz aurkeztuko dira.

Eskabide telematikoak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, web-orri honen bidez: <https://ope.bilbao.eus>.

Helbide elektroniko horretan ezarritako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira eskabideak. Baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla adierazteko, behar bezala zerrendatuta eta identifikazio nahikoarekin adierazi behar dira hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean, eta ez da haien egiaztagiririk aurkeztu behar eskabidearekin batera; izan ere, parte hartzeko baldintzak eta, hala behar izanez gero, alegatutako merezimendu horiek epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Saileko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak hala eskatzen dien unean egiaztatatu beharko dira.

Eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean, alegatutako merezimenduen zerrenda jaso beharko da. Ez da baloratuko bertan alegatutako merezimenduz bestelakorik, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortuak izan beharko dute horiek. Kalifikazio-epaimahaiak ez ditu aintzat hartuko alegatutako merezimenduak, baldin eta eskatzen zaizkionean agiri bidez egiaztatzen ez bada.

Alegatutako merezimenduen zerrenda eskabidearekin/erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkezten ez bada, ezingo da hutsegitea zuzendu.

Paperean egindako eskabideei dagokienez, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideak, 16.4 artikulua aintzat hartzen dituen lekuetan aurkeztu ahalko dira. Horretarako, oinarri hauei atxikita doakie eskabide/erantzukizunpeko adierazpenaren eredu ofiziala, azterketa-eskubideen tasa ordaintzeko posta-igorpenaren egiaztagiriarekin batera aurkeztu beharko dena.

Eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena, dagokion tasaren ordaintzarekin batera, 20 (hogei) egun balioduneko epean bete beharko da, deialdi honen iragarpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horretarako, igande eta jaiegunak ez ezik larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko. Eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epearen barruan ordainduko beharko du azterketa-eskubideen tasa hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duen edonork eta, apirilaren 13ko 8/1989 Legeak –Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak– 12. artikuluan xedatzen duenaren arabera, interesdunari egotz dakioken zioengatik bada ezin izango da itzuli. Beraz, baldintzak ez bete-tzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik hautaketa-prozesutik kanpo uzteak ez ditu azterketa-eskubideak itzularaziko.



Azterketa-eskubideen zenbatekoa Bilboko Udalaren agiriak luzatu eta ematea-gatiko tasak arautzen dituen indarreko zerga-ordenantzan aurreikusitakoaren arabera ordainduko da.

Azterketa-eskubideak 6,00 eurokoak izango dira.

Zenbateko hori eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena bete bezain laster eskuragarri egongo den ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu ahalko da, <https://ope.bilbao.euswebgunean>. Era berean, azterketa-eskubideak ordaindu ahal izango dira, eskabidearen/erantzukizunpeko adierazpenaren edo ordainagiri barra-kodedunaren kopia bat deskargatu eta dokumentu horretan bertan zerrendatuta agertzen diren Bilboko Udalaren erakunde laguntzaileen edozein bulegotan aurkeztuz.

Era berean, telematikoki aurkeztu ez diren eskabideen kasuan, posta-igorpenean egin ahal izango da Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatzeako eta Kudeatzeko Zuzendaritzara (Venezuela plaza 2, 5. solairua, 48001 Bilbo). Oinarri hauei atxikitako eskabide/erantzukizunpeko adierazpenaren eredu ofizialarekin batera aurkeztu beharko da igorpenaren egiaztagiria.

Nolanahi ere, azterketa-eskubideak eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira.

Era berean, eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak ontzat ematen dituzte, eta, aldi berean, eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena formalizatzean, baimena eman ahalko dute telematikoki kontsultatu dadin eskabidea betetzeko behar den dokumentazioa, esate baterako: NANA, titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak eta abar. Baimena ematen bada, ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, baldin eta kontsulta egin badaiteke elkarrengarritasun informatikoaren bidez.

Eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, edo ezarritako tasa eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epearen barruan ordaindu ezean, hautagaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

- b) Denborak edo bitartekoak egokitzea. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak eskuratu nahi dituztenek adierazi egin beharko dute denbora edo baliabideak egokitu behar ote zaizkien oposizio-faseko ariketaren bat egiteko, baita behar dituzten neurri zehatzak ere. Horretarako, ekainaren 9ko PRE/1822/2006 Aginduak –Desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan denbora gehigarriak egokitzeko irizpide orokorrak ezartzen dituenak– aurreikusitako denbora-egokitzapenak aplikatuko ditu hautaketa-organoak, izangaiak eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatutako inguruabarrak justifikatu beharko baititu.
- c) Euskara. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duen lanposturen bat baldintzatzen duten plazetarako euskararen jakite-maila egiaztatzen dutenek, lanpostu horiek nahiz baldintza hori ez dutenak aukeratu ahal izango dituzte.
- d) Hautaprobeen hizkuntza. Hautaprobak zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi diren adierazi beharko da eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean. Ezer adierazten ez bada, proba guztiak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da.
- e) Parte hartzeko txandak. Eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean, honako txanda hauetakoren batean parte hartu nahi dutela adierazi beharko dute izangaiek: a) Librea edo, hala dagokionean, b) Desgaitasuna dutenena; eta bi txanda horietako batean soilik parte hartu ahal izango dute.
- f) Baldintzak eta merezimenduak. Eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko da deialdiaren oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak, orokorrak zein espezifikokoak, betetzen ote diren.





Era berean, merezimenduak eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean behar bezala zerrendatu eta identifikatu egin beharko dira, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren baldintzak eta merezimenduak betetzeko erreferentziako data.

- g) Eskabidea/erantzukizunpeko adierazpena zuzentzea. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak –Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak– xedatzen duenari men eginez, zuzendu daitezkeen akatsak badaude eskabidean, interesdunari jakinaraziko zaio 10 eguneko epea duela haiek zuzentzeko; nabarmendu egingo zaio, halaber, hala egin ezean bere eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

2. Eskatzaileak onartzea.

- a) Eskabidea aurkezteko epea amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du alkate-udalburuak. Zerrenda horietan izangaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta, hala bada, ez onartzeko arrazoia agertuko dira.

- b) Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta udalaren iragar-ki-taulan eta Interneteko helbide honetan <https://ope.bilbao.eus> jarriko da. 10 eguneko epea emango da kanporatze horren aurka erreklamatzeko eta baztertzea eragin duten akatsak edo dokumentuak zuzentzeko. Akatsak zuzentzeko epea igarota, izangaiak onartzeko eta baztertzeko ebazpena onartu duen agintariak aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi eta behin-behineko zerrendak bezalaxe argitaratuko ditu.

Ezingo da zuzenketa-epea erabili eskabidea hobetzeko, eskabideak aurkezteko epean alegatu ez ziren merezimendu berriak gehituz.

- c) Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesten dituen ebazpenaren aurka, berraztertze aukerako errekurtsioa aurkez liteke, hilabeteko epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- d) Aurkeztutako errekurtsioa ebatzi ez bada probak egin behar diren egunerako, haren eraginpean dauden izangaiak azterketa egin ahal izango dute kautelaz, baina hark ez du baliorik izango aipatutako errekurtsioa ezetsi egiten bada.

3. Jakinarazpenak. Onartuen eta/edo baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, hautaketa-prozesuan zehar egin beharreko iragarpen guztiak udal-letxeko iragar-ki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> helbidean argitaratuko dira. Banakako jakinarazpenetarako, eskabidean adierazitakoa hartuko da helbidetzat, ez bazaio gerora beste helbide bat beren-beregi eta modu frogagarrian jakinarazten deialdia egin duen organoari.

**Zazpigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea**

1. Osaera

- a) Deitutako hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailea, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 60. artikuluan; 896/1991 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak, Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen eta oinarrizko arauak arautzen dituenak, 4. artikuluan; 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 31. artikuluan; 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 127.1.h artikuluan; 56/2003 Legeak, abenduaren 16koak, dakarren idazkeran; eta 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari gabeko bizitzarakoak, 20.1 b) artikuluan, gaur egun indarrean dagoen idazketan, diotenari men eginez eratuko da.
- b) Epaimahaiak epaimahaiburu bat, idazkari bat eta hiru epaimahaikide izango ditu, eta horien artean nahitaez egongo da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutako pertsona bat, eta epaimahaikideak ezingo dira bost baino gutxia-



go izan. Epaimahaiaren osaera teknikoa izango da gehienbat, eta espezialitate-printzipioak gidatuko du; beraz, haren kide guztiek deialdiko plazetara sartu ahal izateko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulazioa eduki beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, bete beharreko lanpostuen jakintza-arlo berekoak izan beharko dute.

Egokitzat jotzen diren beste neurri batzuk ere bazterretsi gabe, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak izango direla bermatuko da. Ondore horietarako, ordezkariak izateko joko da sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkariak duenean.

- c) Arrunki, pertsona berberak osatuko dituzte ohiz kanpoko prozesuetako eta enplegua egonkortzeko prozesu berezietako epaimahaiak.
- d) Epaimahaiaren osieran, kide gisa parte hartzeko ahalegina egingo da, betiere b) apartatua adierazitako baldintzak betetzen badituzte edo, nolahi ere, aholkulari modura, desgaitasuna duten pertsonak jardun dezatela, desgaitasuna dutenen txanda dagoen deialdietan.
- e) Epaimahaiaren osaera norberaren izenean izango da beti, eta ezingo da beste inoren ordezkari gisa edo kontura aritu. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, hark ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertan dauden botoen gehiengo hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, epaimahai-burutzan ari denaren botoak ebatziko du.
- f) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak –Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak– 23. artikuluan aurreikusten dituen inguruabarren bat suertatzen denean, epaimahaiko kideek abstenitu egin behar dira eta udalburuari jakinarazi beharko diote, eta izangaiak errekusatu ahal izango dituzte epaimahaiakideak, arestian aipatu den Legearen 24. artikuluan aurreikusten denaren arabera haren aurreko artikuluan aipatzen den zioen bat gertatzen denean.
- g) Ezingo dute epaimahaiaren parte hartu deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa-prozesuetako izangaiak prestatzeko lanak egiten aritu direnek edo aldi horretan bertan edozein erataria deialdiko plazen esparru funtzional bereko Oposizioak prestatzeko zentzoren batekin lankidetzan aritu direnek.
- h) Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen zerrendekin batera, Alkate Udalburuak haiek izendatu ondoren.
- i) Epaimahai kalifikatzailean parte hartzeak zerbitzuagatik kalte-ordainei buruzko araudian legez aurreikusten diren kalte-ordainak jasotzea ekarriko du. Era berean, epaimahaiari aholkuak ematen dizkietenek edo hautaketa-prozesua garatzen laguntzen dutenek ere dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte.

## 2. Eraketa

- a) Epaimahaia ezingo da eratu, eta ezingo du jardun ere, gutxienez mahaiburua (titularra nahiz ordezkaria) eta idazkaria, eta gainerako kideen erdia bertan ez bada.
- b) Hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako, epaimahaiak aholkulari espezialistak hartu ahal izango ditu bere lanerako; beren espezialitate teknikoetan soilik jardungo dute haiek, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, bere 31.3. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aholkularitza eta laguntza teknikoa emanez beren espezialitateetarako, hitza bai baina botorik eduki gabe.
- c) Presidente karguak betetzen dituztenak ez baleude, kargu horren titularra denak bere ordezkaria izendatuko du boto-eskubidea duten kideen artean eta, halako izendapenik ez balego, antzinasun eta adin handieneko kideak ordezkariak izendatuko du, hurrenkera horretan.

Idazkaria eta haren ordezkaria ez baleude, epaimahaiak gehiengo hautatutako kideak ordezkariak izendatuko lituzke.



- d) Presidenteak koordinatuko du hautaketa-prozesua, eta bere kalitate-botoarekin ebatziko ditu bozketetan gerta litezkeen balizko berdinketak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, honek hitza izango baitu, baina botorik ez.
- e) Izangaien kopuruak hala eskatzen duenean, epaimahai kalifikatzaileak administrari eta zerbitzuetako laguntzaile laguntzaileak izendatu ahal izango ditu, behar besteko kopuruan, idazkariak gainbegiratuta, hautaketa-prozesua behar bezala garatzen dela bermatu ahal izateko, zerbitzuagatik kalte-ordainen araudi erregulazionalen haientzat aurreikusten diren laguntzak jasoz.
- f) Epaimahaiakideek eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulariek edo espezialistek, beren egitekoak betetzean, intimitaterako eskubidea eta izangaiekiko errespetua eta begirunea bermatu beharko dituzte, eta haietako bakoitzari buruz jasotako informazioa behar bezala tratatzen dela zaindu beharko dute.
- Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, eta prozeduraren garden-tasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentzialtasunaren, eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzearen erantzule izango da.
- Epaimahaiburuak oposizio-faseko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu, bai eta izangaia nor diren jakin gabe ariketa horiek zuzendu daitezen ere.
- g) Epaimahaiak ahalmena izango du hautaketa-prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, deialdia arautzen duten oinarrietan aurreikusi ez den guztian, eta haren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren auzi guztiak ebazteko, bai eta bere funtzioak betetzeko sortzen direnak ere. Ebazpen horien aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Udalburuari, ebazpenean bertan ezartzen den epean.
- h) Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Bilbon izango du egoitza, Udaleko Erregistro Orokorren helbidean (gaur egun, Ernesto Erkoreka plaza, 12).

**Zortzigarrena. — Dokumentuak aurkeztea**

- a) Dokumentuen zerrenda.- Funtzionario-tasuna lor dezaten proposatutako pertsonen deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzen egiaztatgiriak aurkeztu beharko dituzte Udalaren Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzan, 20 eguneko epean, hautaketa gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita:
1. Nortasun Agiri Nazionalaren edo dagokion Erregistro Zibilak emandako jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia, behar bezala konpultsatua.
  2. Kargu publikoak betetzeko desgaituta ez egotearen eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kanporatuta ez izanaren adierazpena.
  3. 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun-egoerei buruzkoak, aurreikusten dituen bateraezintasun zioen batean barne hartuta ez dagoela dioen adierazpena.
  4. Udal Zerbitzu Medikoek emandako ziurtagiri medikoa, bere eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duena, 1987ko irailaren 24ko Osoko Bilkuraren Erabakiz onetsitako Baztertze Baremoan ezarrita dagoenaren arabera; horretarako, izangaiei azterketa medikoa egingo zaie, hura betetzen dutela egiaztatzeko, eta beharrezkoak diren proba mediko guztiak egin ahal izango dira baztertzeko koadro medikora egokitzen diren egiaztatzeko, hautaketa-prozedura osoan zehar, bere osotasunean hartuta. Medikuziurtagiria aurkaratuz gero, izangaia ontzat ematen du jarritako erreklamazioa aztertu behar duten organoen esku jartzea ziurtagiri hori esleitzeko oinarri diren txosten medikoak, haren ohorerako eskubideari eragiten diotenak izan ezik.



- Minusbaliatu-tasuna duten izangaiak, gainera, aurkeztu beharko dute dagokien plazaren funtzioak betetzeko gaitasuna egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiko Minusbaliatuen Oinarrizko Zentroak emana.
5. Lanpostua eskuratzeko eskatzen den titulua, tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztageria, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 43. artikuluari men eginez, oinarri hauen eranskinean zehazten dena.
  6. Oinarrien zati espezifikoan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoaren frogagiriak.
  7. NAN tamainako bi argazki.
- b) Funtzionarioak. Edozein Administrazio Publikotako funtzionario-tasuna dutenek ez dituzte agiri bidez justifikatu beharko beren aurretiazko izendapena lortzeko erakutsitako baldintzak eta baldintzak; diharduten ministerioaren, toki-korporazioaren edo erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, beren tasuna eta zerbitzu-orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatzen dituenak.
- c) Epea ez betetzea. Baldin eta, adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonak ez badute aurkezten deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, edo, dokumentazioa aztertuta edo osasun-azterketa eginda, ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat edo ez dituztela betetzen eskatutako betekizunak, horrek berez eta besterik gabe baztertzea ekarriko du, eta ezin izango dira izendatu, eta beren jarduketa guztiak balio gabetuta geratuko dira, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuz egindako eskabidea faltsutzeagatik izan lezaketen erantzukizuna ezetsi gabe. Kasu horretan, udalburuak hautaketa-prozesua gainditu eta aipatutako balio gabetzearen ondorioz deitutako plaza kopuruan sartzen ahal direnen aldeko izendapen proposamena egingo du.

**Bederatzigarrena. — Izendapena****1. Izendapena**

Arestian aipatu den dokumentazioa aurkezteko epea amaituta, proposatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dira, izendapenean adierazten den egunetik, oinarri espezifikoetan zehaztutako praktikaldia gainditu ondoren, karrerako funtzionario legez jabetza hartzen den egunera arteko denboraldirako. Aldi horrek gutxienez 2 hilabeteko iraupena izango du.

**2. Izangaiak behin betiko izendatzea**

Izangaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioak emango du, eta onarpena lortzeko ezinbestekoa izango da praktikaldiko gaitasun-adierazpena.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta iragarki-taulan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bilboko Udalaren webgunean (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko dira.

**Hamargarrena. — Lanpostuaz jabetu eta haiei atxikitzea****a) Plazaz jabetzea**

Udal-organo eskudunak proposamena onartu ondoren, behin betiko izendatutako pertsonak kargua hartu eta bete beharko dute 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu battegina onartzen duenak, 62.1.c) artikuluan, eta 707/1979 Errege Dekretuan, apirilaren 5ekoan, eskatzen den baldintza izendapena jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Hala ere, praktiketako funtzionario lanpostuaz jabetzea Udalbatzak agindutako egunetan edo egunetan egingo da.



Epe horretan lanpostuaz jabetzen ez direnak, arrazoi justifikaturik gabe, kargutik baztertuta geratuko dira, eta karguari uko egiten diotela ulertuko da, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, Alkate Udalburuak praktiketako hautaketa-prozesua gainditu eta hautaketa-prozesu osoko puntuazioa batuta balorazio onena lortzen dutenen eta uko egite horren ondorioz bete gabe geratu diren plazen kopuruan sartzen direnen aldeko izendapen-proposamena egingo du.

Karrerako funtzionario izendatuek lanpostua jabetzan hartzean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, haiek hutsik utzitako plazak esleitu ahaliko dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

b) *Lanpostuei atxikitzea*

Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak egingo du deitutako lanpostuaz jabetu direnei lanpostu horiek betetzeko gaitutako lanpostu hutsak atxikitzea, Lanpostuen Zerrendan lanpostu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten artean.

Desgaitasuna duten pertsonen txandan onartu diren eta karrerako funtzionario izendatu direnen kasuan, Bilboko Udalari eskatu ahal izango diote lanpostuetarako atxikipean kontuan har daitezela mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasuna edo pertsona horiei eragin diezaiaketen antzeko beste arrazoi batzuk ere.

II. ENPLEGUA EGONKORTZEKO OHIZ KANPOKO  
PROZESUEN ARAU ESPEZIFIKOAK (LEHIAKETA)

**Hamaikagarrena. — Hautatzeko prozedura**

1. *Izangaiak hautatzeko prozedura.*

Izangaiak aukeratzeko prozedura lehiaketa izango da, dagozkien txandetan: librea eta desgaitasuna dutenena, deialdiaren oinarri espezifikoetan zehazten denaren arabera. Hautaketa-prozesuetan praktikaldi bat gainditzea ezarri ahal izango da, deialdiaren oinarri espezifikoek agintzen dutenaren arabera.

2. *Fase bakarra: Lehiaketa*

a) Arau orokorrak.

Lehiaketa-fasearen egitekoa eskabidean adierazitako merezimenduak aztertu eta balioestea izango; erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da eskabidea, behin-behineko kalifikazioan puntuaziorik handiena lortu duten izangaiak alegatutako merezimenduak, behin betiko kalifikazioaren aurretik, ziurtatu eta egiaztatutako behar izatea baztertu gabe, eskainitako plaza-kopurua osatu arte.

Merezimendu guztiak Alegatu egin beharko dira eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean, hura aurkezteko epearen barruan.

Merezimenduak lortzeko azken eguna eskabideak aurkezteko epea amaitzekoa izango da.

Eskabidea zer egunetan aurkezten den alde batera utzita, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte zenbatuko dira merezimenduak.

b) Fase horretan, honela balioetsiko dira merezimenduak:

b.1) Esperientzia profesionala: Orokorra (Antzinasuna plaza horretan) eta Espezifikoa (Esperientzia lanpostu horretan Bilboko Udalean): Administrazio Publikoan zerbitzuak egitea, deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako ezaugarrien eta balorazioaren arabera, zerbitzu zibil edo merkataritzako enrentamendu-kontratuak, bekak eta praktika profesionalak aintzat hartu gabe.

Esperientzia espezifikoari dagokionez, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera egindako zerbitzuak bakarrik balioetsiko dira, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera.



Esperientzia profesional orokorra administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan egindako zerbitzuei buruzkoa izango da soilik, indarrean dagoen araudian (bereziki EPOTBaren 2. artikuluan) jasotako adieraren arabera, eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Ez dira balioetsiko esperientziarekin zerikusia duten merezimenduak, honako hauek beren-beregi adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide-kategoria.
- Zerbitzu-aldien hasiera-data eta amaiera-data.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak, kategoriak behar bezain argi adierazten ez badu.

Deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazitako datari edo datei dagozkien aldiak bakarrik zenbatetsiko dira, baina inola ere ezingo dira aintzat hartu eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren emandako zerbitzuak. Zenbaketaren ondorioetarako, prestazioa lanaldi arruntean egikaritu bada, erabili beharreko formula hau izango da: lan egindako urte oso bakoitza 365 egunekoa izango da, eta lan egindako hilabete oso bakoitza 30 egunekoa. Lanaldi partzialeko erregimeneko edo lanaldi-murrizketa duten dedikazio-aldiak dauden kasuetan, benetan emandako dedikazio-denboraren proportzioan egingo da zenbaketa eta, betiere indarrean dagoen araudiak ahalbidetzen badu, murrizketa hori bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak aplikatzearen ondorioz eman bada, denbora hori lanaldi osokoa izan balitz bezala zenbatuko zaio onuradunari.

- b.2) Beste merezimendu batzuk: Deialdiaren oinarri espezifikoetan xedatzen denaren arabera balioetsiko dira.

3. *Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak dituzten plazak*

- a) Euskararen jakite-maila eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egiaztatu beharko da.
- b) Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta egingo zaio. Erregistro horretan inskribatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatutzat joko dira. Erregistro horretan agertzen ez diren euskararen jakite-mailaren ziurtagiriak edo tituluak dituztenek haien egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak zehazten dira 297/2010 Dekretuan, azaroaren 9koan, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denean, eta 47/2012 Dekretuan, apirilaren 3koan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriaren bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoan.
- d) Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagozkien plazak betetzeak lehentasuna izango du, beraz, kalifikaziorik onenak lortu dituztelako eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutelako karrerako funtzionario izendatzeko proposatzen diren izangaien artean egingo da.
- e) Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak lortu nahi dituzten eta eskakizun hori egiaztatzen ez dutenek, edo, egiaztatu arren, horrelako plazak eskuratzeko aukerarik ez dutenek, mota horretako lanpostuena baino handiagoa delako hartarako gaituen kopurua, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna ez duten lanpostuetan jarraitu ahal izango dute hautaketa-prozedurarekin; kasu horretan, ariketa horretan lortutako kalifikazioa merezimendu gisa zenbatuko da.





- f) Edonola ere, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak dituzten plazak ezingo dituzte inoiz bete oinarri hauetan aurreikusitako moduan betetzen dituzte-la egiaztatu ez duten izangaiek.
- g) Euskararen jakite-maila merezimendu gisa soil-soilik balioetsiko dira nahitaezkotasun-datarik gabeko lanpostuak betetzea dakarten plazetan edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean nahitaezkotasun-data iraungi ez denetan.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak 98. artikuluan, eta 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 1.4, 2 d) eta 31. artikuluetan xedatzen duenaren babesean, merezimendu horri gehienez eman dakioken puntuazioa ezingo da izan hautaketa-prozesuaren gainerako zatiei emandako gehienezko puntuazioaren %5 baino txikiagoa eta %20 baino handiagoa.

Zehazki, hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezkotasuna iraungita ez duten lanpostuetarako euskararen merezimendu-balioespena honako hau izango da:

- 1. HE: 5,00 puntu.
- 2. HE: 10,00 puntu.
- 3. HE: 15,00 puntu.

Ez dira balioetsiko kasuan kasuko lanposturako eska daitezkeenak gainditzen dituzten hizkuntza-eskakizun egiaztatuak.

#### **Hamabigarrena. – Hautaketa-prozeduraren garabidea**

1. Argitalpena. Onartuen eta/edo baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, merezimenduen behin-behineko balioespena egingo da, eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatutako baldintza eta merezimenduen arabera. Ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legeak –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak– 68. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, 10 egun balioduneko epea emango da balioetsi ez diren eta eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatu diren merezimenduak zuzentzeko, behin-behineko lehentasun-hurrenkera lortze aldera. Epe hori ezingo da inola ere erabili eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatu ez diren merezimendu berriak gehitzeko.

Zuzenketa-fasea amaituta, epe berria emango da behin-behineko kalifikazioan puntuaziorik handiena lortu duten izangaiek alegatutako merezimenduak eta baldintzak ziurtatu eta egiaztatu ditzaten, eskainitako plaza-kopurua osatu arte.

Inoiz ere ez dira balioetsiko eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean adierazi ez diren merezimenduak.

Alegatutako merezimenduak horretarako emandako epean egiaztatu beharko dira, ez bada izangaiek Bilboko Udalean zerbitzuak egiten dituela eta udaleko langileen erregistroetan jasota daudela jada, kasu horretan, ofizios egiaztatuko baita ziurtapena.

2. Behin-behineko kalifikazioei buruzko erreklamazioak. Arau orokor gisa, bost egun balioduneko epea emango da, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Hori guztia, zazpigarren oinarrian epaimahaiaren jardura aurkaratzeari buruz ezarri denari uko egin gabe.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahai kalifikatzaileak plaza lortu duten izangaien behin betiko zerrenda onetsiko du, lortu duten puntuazio-ordenaren arabera; zerrenda hori iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> helbidean argitaratuko da.

- 3. Azken kalifikazioa eta lehentasun-ordena.
  - a) Azken kalifikazioa lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen batuketaren bidez lortuko da (egiaztatu eta ziurtatutako merezimendu bakoitzaren puntuazioen batzura), eta hark ebatziko du lanpostuak lortu nahi dituzten lehentasun-hurrenkera.
  - b) 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 27.2 artikuluan, eta 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari buruzkoak, 20.1 a) artikuluan, gaur egun indarrean dagoen idazketan, xedatzen dena aplikatuz, lehen-



tasuna emango zaio kasuan kasuko plazan % 40tik beherako ordezkaritza duen emakumeei, baldin eta ez balego, sexuagatik diskriminatzaileak izan gabe, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen ziorik beste hautagai batzuegan, hau da, laneratzeko eta lanbidean igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izateak justifikatzen duenik.

- c) Berdinketak jarraituz gero, hurrenez hurren honako irizpide hauek erabiliz ezarriko da hurrenkera: (1\*)
- Lehenik, deitutako lanpostuari dagozkion lanpostuetan Bilboko Udalean lanegun gehien bete dituenaren alde.
  - Bigarrenik, Bilboko Udaleko karrerako funtzionario izateko azken hautaketa-prozesuan posturik onena lortu duenaren alde, deitutako lanpostuan.
  - Hirugarrenik, deitutako lanpostuan antzinasun handiena duenaren alde.
- (1\*) Administrariaren eta administrari laguntzaile orokorraren lanpostuen deialdien kasuan, eta funtzio administratiboaren Giza Baliabideak Antolatzeke Planari —Bilboko Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 26an hartutako Erabakiaren bidez onartutakoari— jarraikiz (2019ko urtarrilaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 6. zenb.), berdinketak jarraituz gero, hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:
- Lehenik, C taldeko funtzio administratiboari dagozkion lanpostuetan Bilboko Udalean lanegun gehien bete dituenaren alde.
  - Bigarrenik, Bilboko Udaleko administrari laguntzaile orokorraren lanpostuko karrerako funtzionario izateko azken hautaketa-prozesuan posturik onena lortu duenaren alde. Lanpostu horretarako deialdia 2010eko urtarrilaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (11. zenbakia).
  - Hirugarrenik:
    - Administrariaren lanpostuetarako deialdian, C taldeko funtzio administratiboko lanpostuetan antzinasun handiena duenaren alde.
    - Administrari laguntzaile orokorraren lanpostuetarako deialdian, C2 azpitaldeko funtzio administratiboan antzinasun handiena duenaren alde.

#### **Hamahirugarrena. — Onartutako pertsonen zerrenda**

1. Prozesua gainditu dutenen zerrenda argitaratzea.

Epaimahaiak honako zerrenda hauek argitaratuko ditu Bilboko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (<https://ope.bilbao.eus>), izangaiei dagozkien kalifikazioekin:

- Desgaitasuna dutenen txanda gainditu dutenen zerrenda, halakorik bada.
- Gainerako izangaien txanda gainditu dutenen zerrenda.

Desgaitasuna duten pertsonen txandako plazak betetzen ez badira, ez dira gainerako plazak gehituko.

2. Hautatuen zerrenda.

- a) Hautaketa-prozesua osatzen duten merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du, puntuazio-ordenaren arabera; 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 32. artikuluan xedatzen duenari men eginez, deitutako plaza guztien kopurua ezingo du gainditu zerrendak, eta dagokion izendapen-proposamena egingo du epaimahaiak, udalburuari zerrenda hori bidaliz. Aldi berean, azken bilkuraren akta helaraziko dio agintari horri eta bertan, deitutako plaza-kopurua gainditzeko izangai guztiek agertu beharko dute, puntuazio-ordenaren arabera; hori guztia, plaza lortu duen norbaitek hartaz jabetzeari uko egingo balio, beste baliakizunik gabe, eta azken zerrenda horretan agertzen beste eskubiderik edo itxaropenik erakartzen ez duen heinean.



Karrerako funtzionario izendatuek lanpostua jabetzan hartzean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, haiek hutsik utzitako plazak esleitu ahalko dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

- b) Aurreko zerrendak bereiz osatu beharko dira, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak diren edo ez kontuan hartuta.
- c) Hautaketa-prozeduran, esan bezala, tratamendu bereizia emango zaie txanda libreetatik eta desgaitasuna dutenen txandetatik datozei, onartuen zerrendei eta gainditu dutenen zerrendari dagokienez. Hala ere, prozesua amaitzean, zerrenda bakarra egingo da, eta bertan sartuko dira hautaketa-prozesu horretan plaza lortu duten izangai guztiak, lortu duten puntuazio osoaren arabera ordenatuta, zein txandatan parte hartu duten kontuan hartu gabe. Zerrenda hori erabakigarria izango da deialdiaren xede diren plazei dagozkien lanpostuak eskatzeko eta esleitzeko.

3. Epaimahaien ebazpenak. Epaimahai kalifikatzaileen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, hargatik eragotzi gabe organo horrek ebazpena berrikusi ahal izatea, indarrean dagoen 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

#### **Hamalagarrena. — Lan-poltsa ez sortzea**

Lehiaketa-prozeduraren bidez egonkortzeko ohiz kanpoko prozesu horiek ez dute lan-poltsarik sorraraziko.

### III. ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIEN ARAU ESPEZIFIKOAK (LEHIAKETA-OPOSIZIOA)

#### **Hamabosgarrena. — Hautatzeko prozedura**

1. Izangaiak hautatzeko prozedura.

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, dagozkien txandetan: txanda librea eta desgaitasuna dutenena, deialdiaren oinarri espezifikoek agintzen dutenaren arabera, eta haren egikera izango da ondoz ondo egitea oposizio-fasea, oinarri espezifiko horietan zehazten diren ariketek osatuko dutena, eta merezimenduak balioes-terko lehiaketa-fasea, aldeztu aurretik oposizio-fasea burutu ondoren.

Hautaketa-prozesuetan praktikaldi bat gainditzea ezarri ahal izango da, deialdiaren oinarri espezifikoek agintzen dutenaren arabera.

2. Oposizio-fasea.

- a) Oposizio-fasea oinarri espezifikoetan jakinaraziko diren ariketek osatuko dute; eta deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da ezagutzea eskatuko den araudia.
- b) Ariketak teorikoak eta praktikoak izango dira, eta elkarren segidan egin ahal izango dira lanaldi berebean; epaimahaiak ariketen arteko atsedenaldi bat eman ahal izango die izangaiei.
- c) Hautaketa-prozesu bakoitzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egiaztatu beharko da euskararen jakite-maila merezimendu den heinean.

3. Lehiaketa-fasea.

a) Arau orokorrak.

- a.1) Lehiaketa-fasean, oposizio-fasea gainditu duten izangaiek eskabidean adierazitako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Eskabidea erantzukizunpeko adierazpen gisa hartuko da, bazterretertsi gabe behin-behineko kalifikazioan puntuazio handiena lortu duten izangaiek alegatutako merezimenduak behin betiko kalifikazioaren aurretik egiaztatu eta gero ziurtatzea, eskainitako plaza-kopurua osatu arte eta, hala bada, dagokion lan-poltsako



gehienezko izangai-kopurua osatu arte, oinarri espezifikoetan ezarri diren baldintzetan.

Merezimendu guztiak Alegatu egin beharko dira eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean, hura aurkezteko epearen barruan.

Merezimenduak lortzeko azken eguna eskabideak aurkezteko epea amaitzekoa izango da.

Eskabidea zer egunetan aurkezten den alde batera utzita, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte zenbatuko dira merezimenduak.

- a.2) Lehiaketa-fasea ez da kanporatzailea izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio-faseko probak gainditzeko, 896/1991 Errege Dekretuak, ekainaren 7koak, Toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen duenak, 4.c) artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz.
- a.3) Lehiaketa-faseko balorazioak ez du inoiz ere gaindituko hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 40 (ehuneko berrogei), euskara merezimendu gisa balioestean izan ezik, 20/2021 Legeak, abenduaren 28koak, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, 2.4 artikuluan, eta 7/2021 Legeak, azaroaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Kidegoei eta Eskalei buruzkoak, lehendabiziko xedapen gehigarrian, agintzen dutenari men eginez.
- b) Fase horretan, merezimenduak honela balioetsiko dira:

Esperientzia profesionala: Orokorra (Antzinasuna plaza horretan) eta Espezifikoa (Esperientzia lanpostu horretan Bilboko Udalean): Administrazio Publikoan zerbitzuak egitea, deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako ezaugarrien eta balorazioaren arabera, zerbitzu zibil edo merkataritzako enrentamendu-kontratuak, bekak eta praktika profesionalak aintzat hartu gabe.

Esperientzia espezifikoki dagokionez, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako zerbitzuak soilik baloratuko dira; izan ere, 20/2021 Legearen 2.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz, egonkortze-prozesu berezietan aintzat hartuko dira plazak, baldin eta, aurrekontu-zuzkidura edukiz, aldi baterako eta etenik gabe estalita egon badira 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan gutxienez.

Esperientzia profesional orokorra administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan egindako zerbitzuei buruzkoa izango da soilik, indarrean dagoen araudian (bereziki EPOTBaren 2. artikuluan) jasotako adieraren arabera, eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Ez dira balioetsiko esperientziarekin zerikusia duten merezimenduak, honako hauek beren-beregi adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide-kategoria.
- Zerbitzu-aldien hasiera-data eta amaiera-data.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak, kategoriak behar bezain argi adierazten ez badu.

Deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazitako datari edo datei dagozkien aldiak bakarrik zenbatetsiko dira, baina inola ere ezingo dira aintzat hartu eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren emandako zerbitzuak. Zenbaketaren ondorioetarako, prestazioa lanaldi arruntean egikaritu bada, erabili beharreko formula hau izango da: lan egindako urte oso bakoitza 365 egunekoa izango da, eta lan egindako hilabete oso bakoitza 30 egunekoa. Lanaldi partzialeko erregimeneko edo lanaldi-murrizketa duten dedikazio-aldiak dauden kasuetan, benetan emandako dedikazio-denboraren proportzioan egingo da zenbaketa eta, betiere indarrean dagoen araudiak ahalbidetzen badu, murrizketa hori bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak aplikatzearen ondorioz eman bada, denbora hori lanaldi osokoa izan balitz bezala zenbatuko zaio onuradunari.



4. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak dituzten plazak.
  - a) Euskararen jakite-maila eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egiaztatu beharko da.
  - b) Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuari (ETZEB) kontsulta egingo zaio. Erregistro horretan inskribatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatutzat joko dira.  
Erregistro horretan agertzen ez diren euskararen jakite-mailaren ziurtagiriak edo tituluak dituztenek haien egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
  - c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak zehazten dira 297/2010 Dekretuan, azaroaren 9koan, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denean, eta 47/2012 Dekretuan, apirilaren 3koan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteari buruzkoan.
  - d) Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagozkien plazak betetzeak lehentasuna izango du, beraz, kalifikaziorik onenak lortu dituztelako eta eskutatako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutelako karrerako funtzionario izendatzeko proposatzen diren izangaiei artean egingo da.
  - e) Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak lortu nahi dituzten eta eskakizun hori egiaztatzen ez dutenek, edo, egiaztatu arren, horrelako plazak eskuratzeko aukerarik ez dutenek, mota horretako lanpostuena baino handiagoa delako hartarako gaituen kopurua, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna ez duten lanpostuetan jarraitu ahal izango dute hautaketa-prozedurarekin; kasu horretan, ariketa horretan lortutako kalifikazioa merezimendu gisa zenbatuko da.
  - f) Edonola ere, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak dituzten plazak ezingo dituzte inoiz bete oinarri hauetan aurreikusitako moduan betetzen dituztela egiaztatu ez duten izangaiek.
  - g) Euskararen jakite-maila merezimendu gisa soil-soilik balioetsiko dira nahitaezkotasun-datarik gabeko lanpostuak betetzea dakarten plazetan edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean nahitaezkotasun-data iraungi ez denetan.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak 98. artikuluan, eta 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 1.4, 2 d) eta 31. artikuluetan xedatzen duenaren babesean, merezimendu horri gehienez eman dakioken puntuazioa ezingo da izan hautaketa-prozesuaren gainerako zatiei emandako gehienezko puntuazioaren % 5 baino txikiagoa eta % 20 baino handiagoa.

Zehazki, hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezkotasuna iraungita ez duten lanpostuetarako euskararen merezimendu-balioespena honako hau izango da:

1. HE: 5,00 puntu.
2. HE: 10,00 puntu.
3. HE: 15,00 puntu.

Ez dira balioetsiko kasuan kasuko lanposturako eska daitezkeenak gainditzen dituzten hizkuntza-eskakizun egiaztatuak.

#### **Hamaseigarrena. — Oposizio-faseko ariketen garabidea**

1. Argitalpena. Oposizio-faseko lehen ariketaren lekua, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> helbidean argitaratuko dira, hautaketa-prozesurako onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.



Oposizioko gainerako ariketen ondorengo iragarkiak udaletxeko iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> helbidean argitaratuko ditu epaimahaiak. Iragarki horiek gutxienez hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dira.

2. Deialdia. Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako eta dei egiten zaion unean norbait ez bada agertzen edozein ariketatara, automatikoki bertan behera geratuko da ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko haren eskubidea, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak libreki balioetsitako kasuetan izan ezik. Arau berbera aplikatuko zaie nahitaezko edozein ariketa egitera ariketa hura egiten hasi ondoren agertzen diren izangaiei. Borondatezko probak ez egitea edo berandu agertzea proba horiei uko egitearen parekotzat hartuko da.

3. Jarduera-ordena. Izangaien jarduera-ordena Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak, 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, egiten duen zozketaren arabera izango da. Zozketan suertatzen den letrarekin hasten den lehen abizena duen izangairik ez balego, ondorengo letrez hasten diren abizenen arabera izango da ordena.

4. Identifikazioa. Epaimahai kalifikatzaileak eta haren laguntzaileek uneoro eskatu ahal izango diete hautagaiei behar bezala identifika daitezela; horretarako, oposizio-ariketa bakoitzean NANA edo beste edozein agiri ofizial eraman beharko dute, baldin eta epaimahaiaren iritziz hark (pasaporteak, gidabaimenak, Atzerritarraren Nortasun Zenbakiak, eta abar.) izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen badu.

5. Denborak eta bitartekoak egokitzea. 2271/2004 Errege Dekretuak, abenduaren 3koak, 8. artikuluan, eta 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, zazpigarren xedapen gehigarrian, diotenaren babesean, hautaketa-organoak ahalmena izango du oposizio-faseko probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen denbora eta bitartekoak egokitzeo desgaitasunen bat egiaztatu duten eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere probaren edukia desitxuratzen ez bada eta bertan eska daitekeen gaitasun-maila kaltetzen edo murrizten ez bada, probak gainerako izangaien baldintza berberetan egingo direla bermatu beharko baita.

6. Ariketen arteko tartea. Oposizioko ariketa bakoitza amaitu eta hurrengo hasten den arte, gutxienez 72 ordu eta gehienez 45 egun igaro beharko dira. Halaz eta guztiz ere, eta komenigarria dela baderitzo, epaimahaiak erabaki dezake aldi berean hainbat ariketa egitea saio berebean, bai eta egoki deritzon ariketak irakurtzea ere izangaiek; irakurketa hori jendaurekoea izango litzateke eta behar bezala adierazitako egun eta orduetan egingo da, eta kasu horretan, 48 ordu lehenago jakinarazi beharko da.

#### **Hamazazpigarrena. – Hautaketa-prozesuko kalifikazioak**

1. Emaizak argitaratzea. Ariketa bakoitzeko puntuazioak Udalbatzako iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> helbidean iragarri argitara emango dira, epaimahaiak kalifikazioa erabaki ondorengo 24 orduetan.

2. Oposizio-faseko ariketen kalifikazioa. Oposizio-ariketa bakoitzeko kalifikazioak, eskuarki, epaimahaiko kideek emandako puntuazioak batu eta guztizkoa epaimahaikideen kopuruaz zatituz ebatziko dira, eta zatidura hori izango da izangai bakoitzaren behin betiko kalifikazioa. Hala ere, epaimahaiak erabaki ahal du baztertzea kalifikaziorik altuena eta baxuena edo, hala badagokio, kalifikazioen artean errepikakorra denetako bat, gainerako kideek emandako batez besteko kalifikazioarekiko gehiegizko desbideratzea kausitzen denean, hartara, kalifikazio orokorraren homogeneotasun handiagoa lortu ahal izateko.

3. Lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa.

Oposizio-aldia amaitu ondoren, merezimenduen behin-behineko balioespena egingo da, eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baldintzak eta merezimenduak kontuan hartuta. Ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legeak –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak– 68. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, 10 egun balioduneko epea emango da balioetsi ez diren eta eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatu diren merezimenduak zuzentzeko, behin-behineko





lehentasun-hurrenkera lortze aldera. Epe hori ezingo da inola ere erabili eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean alegatu ez diren merezimendu berriak gehitzeko.

Zuzenketa-fasea amaituta, epe berria emango da behin-behineko kalifikazioan puntuaziorik handiena lortu duten izangaiek alegatutako merezimenduak eta betekizunak egiaztatu eta ziurta ditzaten eskainitako plaza-kopurua osatu arte eta, halakorik izanez gero, dagokion lan-poltsako gehienezko pertsona-kopurua osatu arte, oinarri espezifikoetan finkatutako baldintzetan.

Inoiz ere ez dira balioetsiko eskabidean/erantzukizunpeko adierazpenean adierazi ez diren merezimenduak.

Alegatutako merezimenduak horretarako emandako epean egiaztatu beharko dira, ez bada izangaiek Bilboko Udalean zerbitzuak egiten dituela eta udaleko langileen erregistroetan jasota daudela jada, kasu horretan, ofizioz egiaztatuko baita ziurtapena.

Oposizio-fasea gainditu duten izangaiei lehiaketa-merezimenduak balioesteko, esleitu zaizkien puntuen batura hartuko da kontuan, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritako baremoen arabera.

4. Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak. Arau orokor modura, bost egun balioduneko epea emango da, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, egindako azterketak berrikustea eskatu edo azterketen kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Hori guztia, zazpigarren oinarrian epaimahaiaren jardura aurkaratzeari buruz ezarri denari uko egin gabe.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahai kalifikatzaileak plaza lortu duten izangaiei behin betiko zerrenda onetsiko du, lortu duten puntuazio-ordenaren arabera; zerrenda hori iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> helbidean argitaratuko da.

5. Azken kalifikazioa eta lehentasun-ordena.

a) Azken kalifikazioa lortzeko, oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuazioak batuko dira (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura eginez), eta plazak lortu nahi dituzten lehentasun-ordena finkatuko da.

b) 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 27.2 artikuluan, eta 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako buruzkoak, 20.1 a) artikuluan, gaur egun indarrean dagoen idazketan, xedatzen dena aplikatuz, lehentasuna emango zaio kasuan kasuko plazan % 40tik beherako ordezkariak duen emakumeei, baldin eta ez balego, sexuagatik diskriminatzaileak izan gabe, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen ziorik beste hautagai batzuegan, hau da, laneratzeko eta lanbidean igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izateak justifikatzen duenik.

c) Berdinketak jarraituz gero, hurrenez hurren honako irizpide hauek erabiliz ezarriko da hurrenkera: (1\*).

— Lehenik, deitutako lanpostuari dagozkion lanpostuetan Bilboko Udalean lanegun gehien bete dituenaren alde.

— Bigarrenik, Bilboko Udaleko karrerako funtzionario izateko azken hautaketa-prozesuan posturik onena lortu duenaren alde, deitutako lanpostuan.

— Hirugarrenik, deitutako lanpostuan antzinate handiena duenaren alde.

(1\*) Administrariaren lanpostuen deialdiaren kasuan, eta funtzio administratiboaren Giza Baliabideak Antolatze Planari — Bilboko Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 26an hartutako Erabakiaren bidez onartutakoari — jarraikiz (2019ko urtarrilaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 6. zenb.), berdinketak jarraituz gero, hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

- Lehenik, C taldeko funtzio administratiboari dagozkion lanpostuetan Bilboko Udalean lanegun gehien bete dituenaren alde.
- Bigarrenik, Bilboko Udaleko administrari laguntzaile orokorraren lanpostuko karrerako funtzionario izateko azken hautaketa-prozesuan



posturik onena lortu duenaren alde. Lanpostu horretarako deialdia 2010eko urtarrilaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialea argitaratu zen (11. zenbakia).

- Hirugarrenik, C taldeko funtzio administratiboko lanpostuetan antzintasun handiena duenaren alde.

**Hemezortzigarrena. — Prozesua gainditu dutenen zerrenda**

1. Prozesua gainditu dutenen zerrenda argitaratzea.

Epaimahaiak honako zerrenda hauek argitaratuko ditu Bilboko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (<https://ope.bilbao.eus>), izangaiei dagozkien kalifikazioekin:

- Desgaitasuna dutenen txanda gainditu dutenen zerrenda, halakorik bada.
- Gainerako izangaien txanda gainditu dutenen zerrenda.

Desgaitasuna duten pertsonen txandako plazak betetzen ez badira, ez dira gainerako plazak gehituko.

2. Hautatuen zerrenda.

- a) Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketa eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, puntuazio-ordenaren arabera; pertsona horien kopuruak ezin izango du gainditu deitutako plaza guztien kopurua, 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 32. artikuluan xedatzen duenari men eginez, eta dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori udalburuari helaraziz. Aldi berean, azken bilkuraren akta helaraziko dio agintari horri eta bertan, deitutako plaza-kopurua gainditzeko izangai guztiek agertu beharko dute, puntuazio-ordenaren arabera; hori guztia, plaza lortu duen norbaitek hartaz jabetzeari uko egingo balio, beste baliakizunik gabe, eta azken zerrenda horretan agertzen beste esku-biderik edo itxaropenik erakartzen ez duen heinean.

Karrerako funtzionario izendatuek lanpostua jabetzan hartzean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, haien hutsik utzitako plazak esleitu ahalko dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

- b) Aurreko zerrendak bereiz osatu beharko dira, nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak diren edo ez kontuan hartuta.
- c) Hautaketa-prozeduran zehar, esan bezala, tratamendu desberdina emango zaie txanda irekitik datozeinei eta desgaitasuna dutenen txandakoei, onarpenen zerrendari, ariketarako deiei eta gainditu dutenen zerrendari dagokienez. Hala ere, prozesua amaitzean, zerrenda bakarra egingo da, eta bertan sartuko dira hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten izangai guztiak, lortutako gutzizko puntuazioaren arabera ordenatuta, parte hartu duten txanda edozein izanik ere. Zerrenda hori erabakigarria izango da deialdiaren xede diren plazei dagozkien lanpostuak eskatzeko eta esleitzeko.

3. Epaimahaien ebazpenak. Epaimahai kalifikatzaileen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, hargatik eragotzi gabe organo horrek ebazpena berrikusi ahal izatea, indarrean dagoen 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.